

SAKANAKO HERRI KIROL ESKOLEI DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA. 2024. URTEA

1.- Lehenengoa: helburua

- 1.- Deialdi honen helburua Sakanako herri kirol eskolek dauzkaten gastuetan laguntzea da. Horretarako Sakanako Mankomunitateak kirol aurrekontutik 1300€ko partida hauek erabiliko du: Oinarriok arautzen dituzten diru-laguntzak aurrekontu erabilgarriaren arabera izanen dira.
- 1.2.- Deialdi hau Sakanako kirol elkarteek dauzkaten gastuetan laguntzera mugatuko da.

2.- Bigarrena: bete beharreko baldintzak

- 2.1.- Kirol elkarteak Sakanakoa izatea.
- 2.2.- Kadete mailarako kirolariak parte hartzea jarduera horretan, Izen abizenak, herria eta kategoria (kadeteak barne).
- 2.3. Emakumeen partaidetza kontuan izango da.
- 2.4.- Desgaitasun funtzionala duten pertsonen presentzia taldean kontuan izango da.
- 2.5.- Haur eta nerabeen babeserako protokoloa izatea eta babes-ordezkaria izendatua egotea baloratuko da. Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa.

3.- Hirugarrena: aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- 3.1. Eskaera orria guztiz betea.
- 3.2. Taldearen partaideak kadeteraino (barne). Emakumezkoen kopurua zehaztu.
- 3.3. Monitoreen izenak eta entrenamendu egutegiak eta ordutegiak.
- 3.4. Balantze ekonomikoa: gastuak eta sarrerak. Zerrendatu. Mankomunitateak aukera izango du fakturak eskatzeko edozein kasutan.
- 3.5. Euskara
 - Monitoreak euskaldunak izatean.
 - Euskararen erabilpena entrenamenduetan.
 - Euskararen erabilpena karteletan, eta zabaltzen diren bestelako dokumentazioetan (adibideak gaineratu behar dira).
- 3.6. Begiraleek egindako trebakuntza ikastaroaren ziurtagiria (zehaztu formakuntza)
- 3.7. Emakumeen presentzia taldean
 - Zehaztu kirolari neska eta mutilen zerrenda
 - Zehaztu monitore edo entrenatzaile neska eta mutilen zerrenda
 - Zehaztu juntakide neska eta mutilen zerrenda
- 3.8. Desgaitasun funtzionala duten pertsonen presentzia taldean
- 3.9. Haur eta nerabeen babeserako taldearen protokoloa eta babes-ordezkariaren izen-abizenak

*Hauetariko daturen bat falta bada, puntu hori ez da kontuan hartua izango diru-laguntza emateko.

4.- Laugarrena: Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea: Balorazio batzordeak, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten badu, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluak arautzen duen bezala. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

5.- Bostgarrena: Diru-laguntzak emateko erabiliko den baremoa honako hau izanen da:

- 5.1. %20 talde guztien artean berdin
- 5.2. %20 partaideak: partaide kopurua.
- 5.3. %10 begiraleak: begiraleak daukaten kostua.

	DIRULAGUNTZA ESKAEREN OINARRIAK	
-----------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------	--

- 5.4. %10 euskara: euskararen erabilpena kirol elkartearen funtzionamenduan eta saioetan.
- 5.5. %10 materiala: materialean izan diren gastuak
- 5.6. %10 monitoreak egindako trebakuntza ikastaroak
- 5.7. %10 Emakumeen presentzia taldean
- 5.8. %10 Desgaitasun funtzionala duten pertsonen presentzia taldean
- 5.9. %10 Haur eta nerabeen babeserako protokoloa izatea eta babes-ordezkarria izendatua egotea

6.- Seigarrena: Balorazio batzordea:

Kirol zerbitzuko teknikariek aztertu eta baloratuko dituzte aurkeztutako eskabideak.

7.- Zazpigarrena: Eskeraurkezteko lekua: dokumentazioa Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrean aurkeztu behar dira:

Sakanako Mankomunitatea

Kirol Zerbitzua

Uriz 32

31830 Lakuntza

Telefonoa: 948 464867

E-posta: erregistroa@sakana-mank.eus

8.- Zortzigarrena: Eskabideak aurkezteko epea:

2024ko abenduaren 12an amaituko da.

9.- Bederatzigarrena: Diru- laguntzaren jakinarazpena:

Sakanako Mankomunitateko lehendakariak dagokion ebazpena egin eta jakinaraziko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta argitaratutako hurrengoekin bat 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen, jasotzailearen zerrenda eta zenbatekoak adieraziz; onartu gabekorik baleude, beraien berri ere bertan emango da zergatiakin batera.

10.- Hamargarrena: Bateragarritasuna:

Deialdi honetako diru- laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain- finantzaketarik gertatzen ez bada.

11.- Hamaikagarrena: Datuen babesa:

Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea.

Xedea: Kirol Zerbitzuak hiritarrei eskainitako zerbitzuen kudeaketa eta, eskatuz gero, zerbitzuak antolatutako ekimenak eta informazioaren bidalketa.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko edota ezabatzekeo eskubidea duzu, baita bestelako eskubideak ere, Mankomunitatearen bulegoetara edo info@sakana-mank.eus helbidera joz.

Informazio gehiago: Pribatutasun Politika www.sakana-mank.eus helbidean.

Besteren datuak:

Tramitazioan, hura burutzen ari den pertsonaren aparteko norbaiten datu pertsonalak sartu beharko balira, egin aurretik hirugarren pertsona horri aurreko paragrafoan bildutakoaren berri eman beharko zaio, eta haren berariazko baimena eskatu, hala beharko balitz.

12.- Hamabigarrena: Errekurtsoak.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio ebazpenen aurka, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahalko dira:

- Berraztertzekeo errekurtsoa, administrazio egintzaren egile den organoari zuzendua. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina hilabeteko epean.

	DIRULAGUNTZA ESKAEREN OINARRIAK	
-----------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------	--

- *Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.*
- *Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.*

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO KIROL ZERBITZUA